

15. ESAERA ZAHARRAK

Ikusten duzularik “goiz gorri, arratserako haize hegoa edo euri” eta ikusten baduzu arrats gorri, “arrats gorri, bihar eguraldi”, bihar eguraldi ona. “Arrats gorri, bihar eguraldi”.

Igual hortik, beheiti horretan arrats gorri, “bihar denbora ederra diagu”.

Eta izarrekin? Bada zerbait ere ere bai... Izarrak juntu...

“Izarrak baldin badira... juntu, fit... ez, denbora kanbioa duk, fite denbora txarra diagu”. Hori aditu dut nik.

Eta, hor bada izarretan, lehengo aldian erran nizun Oilo koloka bortz txitorekin. Bai eta nik ezagutzen dut hori, zein den hori... denbora garbi delarik ikusten da.

Nola da Oilo koloka bortz txitorekin?

Izar bat bada, da... dira, ez dakit bortz edo sei diren denak, denak hurbil hola, eta bat erdian handixeago, izarra. Eta hura ondoan da oilo koloka. Bueno, norbaitek... pentsatuta. Bai, eta badu manera, bertzeak, txikiagoak dira bertze izarrak. Hor ikusiko duzu lainorik gabe eta dena egoten baita dena zerua azul-azula dena izar garbi, orduan ikusten da hori.

Eta Erregeak zer da?

Hiru errege, izarrak badira hiru. “Hara hiru erregeak non diren!” Gure ama aritzen zen: “Hara! Ikusten duzu?”. Gaspar, Meltxor eta Baltasar. Gure aitak ere... haiek ere ezagutzen ditut, bada, nik. E... hola egoten dira xux... hola. “Hara non diren Hiru erregeak!”.

Eta gero, erran zenuen lehengo aldian... hori, izarrak bakan egoten baldin badira?

Denbora ederra.

Eta zubian bezala? Hori nola da? Zubian bezala...

Ortzadarra? Axeriko ezkontzen? Axeriko ezkontzen? Puta! Erreka zoko batetik bertzera, hola. Eratzuna... hola, tipo honetan, hola, hola, erreka zoko batetik bertzera. Igual egiten du euri erauntsi bat, gero egiten da handik bertzeko... ez du arrunt euria behar, handik bertzeko eguzki pixka bat, gero berriz euri pixka bat, orduan agertzen da ortzadarra. “Hara! Axeriko ezkontzen! Axeriko ezkontzen!”.

Eta zer gehiago erraten diozue? Bi errekatatik... Hemen erraten duzue bi errekatatik... ura edaten ari dela... Hori erraten duzu?

Ba, ura edaten ez dakit. Hori denako... azeriko ezkontzan ere bi errekatatik hartzen da. Igual, urik gabeko erreka badira, urik gabekoak ere, hola, erreka zokoak. Eta hola.

Hori da, badakizu zer egin behar duen horrekin? Euria ere ez fuerte, beroa ere ez, igual euri pixka bat eta gero bero pixka bat, gero berriz igual bertze euri pixka bat eta orduan agertzen da hori. Axeriko ezkontzen.

Eta Santiagoko zubia zeri deitzen diozu?

Santiagoko zubia erraten zuen gure lehengo... hila da gizon bat, belarretan aritzen eta: "To! Orain ere Santiagoko zubia ez duk zuzen, denbora txarra fite diagu". Dudarik gabe, behar du zuzen denbora ona izateko, orain, igual zu belarretan egiten dizu eguraldi ona beti, buelta bat zortzi egunero eta, Santiago zen hola beharrean, zuzen, hola okerrera. "Fite denboraren kanbioa duk".